AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5014

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 17koa, Hezkuntzako sailburuordearena, 2015. urtean irakasleen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetarako deia egiten duena.

47/1993 Dekretuak (1993-04-02ko EHAA) irakasleen HE1 eta HE2 hizkuntza-eskakizunak ezarri zituen. Gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1994ko urtarrilaren 10eko Aginduak (1994-01-26ko EHAA) Irale programaren ebaluazioa eta hizkuntza-eskakizunen azterketetako edukia eta forma arautu zituen. 1995eko apirilaren 10eko Aginduak (1995-05-11ko EHAA) eta 1998ko urriaren 22koak (1998-11-05eko EHAA) azterketaldi mota desberdinen kalifikazio-sistemak ezarri zituzten. Era berean, apirilaren 5eko 66/2005 Dekretuak (2005-04-14ko EHAA) HLEA hizkuntza-eskakizuna sortu eta arautu zuen Hezkuntza Bereziko lan-legepeko heziketa-langileentzat.

Ebazpen honen xede nagusia irakasleen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen 2015. urterako deia egitea da.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ebazpen honen xedea irakasleen HE1, HE2 eta HLEA hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen 2015. urterako deia egitea da, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan.

2. artikulua.– Hezkuntza Sailak, 2015. urtean, hizkuntza-eskakizunen deialdi itxi bat egingo du, Iralen liberatuta dauden ikasketariei zuzendua, eta deialdi ireki bat. Deialdi bakoitzeko matrikulazio-baldintzak ebazpen honetan zehazten dira. Deialdi itxiak bi azterketaldi izango ditu, bata ekainean eta bestea irailean.

3. artikulua.– Hizkuntza-eskakizunen deialdi itxian ondoko ikasketariek matrikulatu behar izango dute: 2014-2015 ikasturtean Irale programan dagokien amaierako ikastaro-mota egiteko liberatutako ikasketariek, hau da, U2koek eta 3000koek HE1erako, U3koek edo 5000koek HE2rako eta 4000koek HLEArako. Horretaz gain, kasuan kasuko azterketan matrikulatzeko aukera izango dute 3300, 4300, 5300 edo N040 ikastaro-motak egiten ari diren ikasketariek, baldin eta azterketa-eguna baino lehen 450 orduko txanda osoa tarteko etenik gabe ikasi izana egiaztatzen badute.

4. artikulua.– Deialdi irekian matrikulatu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan irakasle- edo heziketa-lanean aritzeko 2014-2015 ikasturteko hautespen-prozesu publikoetan parte hartzen dutenak, beren deialdiaren baldintzen barnean, eta prozesu horiek finkatzen dituzten arauen arabera, hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu behar badute. Hautespen-prozesuen deialdia berandu egiten bada eta izangaiak hizkuntza-eskakizunen azterketetara joan ezin badira, berariazko azterketak egin ahal izango dira geroago, deialdi irekiaren esparruan.

5. artikulua.– Hezkuntza Bereziko HLEA eskakizunerako, konkretuki, honako hauek matrikulatu ahal izango dira: 4. artikuluan aipatutakoez gain, Gizarteratzeko edota Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikariaren titulazioa edo baliokidea dutenak, bai eta Fisioterapia, Gizarte-lana,

Lanbidezko Terapia eta Zeinu Hizkuntzako Interpretazio tituluak dituztenak ere. Orobat Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Bereziko lan-legepeko heziketa-langile bezala aritzen direnak eta arlo horretan indarrean dagoen ordezkapen-zerrendan daudenak.

6. artikulua.– HE2ko deialdi irekirako, berriz, honako hauek ere matrikulatu ahal izango dira: 4. artikuluan aipatzen direnez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan edo pribatu baimenduetan 2013-2014 edo 2014-2015 ikasturteetan zerbitzuak egin dituzten irakasle eta heziketa-langileak, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten zentroetakoak barne direlarik. Era berean, matrikulatzeko aukera izango dute beste autonomia erkidegoetan irakaslanean ari diren karrerako funtzionarioek edo berriro laneratzeko eskubidea dutenek, eta EAEko irakaskuntza publikoko indarreko ordezkapen-zerrendetan dauden irakasleek. Zerbitzu-egiteari dagokionez, aski izango da egun bateko zerbitzua egin izana, 2013ko irailaren 1etik matrikula-egunera arte.

7. artikulua.– HE1eko deialdi irekirako, aldiz, honako hauek matrikulatu ahal izango dira: 4., 5. eta 6. artikuluek eragindako pertsonez gain, irakaslan edo heziketa-lanerako beharrezko titulazioa dutela egiaztatzen dutenak. HE1eko azterketariek Maisu, Lizentziatu, Diplomatu, Graduatu, Gizarteratzeko edo Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikariak izan beharko dute, edota irakasle eta heziketa-lanerako balio duen tituluaren jabe. Izangaiok, maisuak, pedagogoak, Haur Hezkuntzako teknikariak eta 5. artikuluan aipatutako titulazioak izan ezik, titulazio hauetariko bat izan beharko dute: Didaktika Espezializazioko Titulua (TED), Pedagogia Gaitasuneko Ziurtagiria (CAP), Irakaskuntzan Gaitzeko Master Titulu Ofiziala, ondoko lanbideetan jarduteko balio duena: DBHko irakaslea, Batxilergokoa, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntza, edo baliokidea.

8. artikulua.– Arau orokor gisa, deialdi itxian hizkuntza-eskakizun jakin baterako matrikulatzen diren pertsonak ezin izango dira matrikulatu eskakizun horretarako deialdi irekian 2015eko urte berean, baldin eta langileen hautespen-prozesu publikoen datek hala aholkatu eta Hezkuntza Sailburuordetzak espresuki hala erabaki ez badu.

9. artikulua.– Arau orokor gisa, izangaiak hizkuntza-eskakizun bakar batean matrikulatu ahal izango dira deialdi bakoitzaren barnean, alegia, bai deialdi irekian eta bai itxian. Langileriaren hautespen-prozesuetan irizpide berbera aplikatuko da, prozesuaren araudiak besterik ezartzen ez badu.

10. artikulua.– Deialdi irekian matrikulatzeko eskabide normalizatua egin beharko da Internet bitartez, helbide honetan (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/euskara). Horrez gainera, Hezkuntza Ordezkaritzan dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko da: NANaren fotokopia, titulazio akademikoaren, Pedagogia Gaitasuneko Ziurtagiriaren (CAP) edo baliokidearen fotokopia konpultsatuak eta egindako zerbitzuen egiaztagiria. EAEko irakaskuntza publikoko zein pribatuko langile finkoek ez dute dokumentazio gehigarririk aurkeztu beharko, baldin eta datu horiek Hezkuntza Sailburuordetzan jasoak badira. Nolanahi ere, sare pribatuko aldi baterako langileriaren kasuan edota dokumentazio hori Ordezkaritzan ez dagoen beste kasu batzuetan, interesatuak agiri horiek aurkeztu egin beharko ditu matrikula gauzatzeko. Izen-ematea bide telematikoz egin izanak ez du esan nahi gainerako dokumentazio guztia aurkeztu behar ez denik.

11. artikulua.– Irale programan liberatuta dauden irakasleak deialdi itxian matrikulatzeko prozedura Iraleko irakastegiek egingo dute. Aldiz, 3300, 4300, 5300 edo N040 ikastaroetakoek Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko dute beren eskabidea.

12. artikulua.– a) Interesdunek lekuan lekuko Hezkuntza Ordezkaritzara zuzenduko dute matrikula. Matrikulatzeko epea 2015eko urtarrilaren 13an irekiko da eta hil horretako 22an itxiko.

b) Deialdi itxiko ikasketarien matrikulazioa epe horretan bertan egin beharko da, edota urtarrilean liberatu eta hamabost eguneko epean.

13 artikulua.– Aurreko artikuluan ezarritako matrikulazio-epeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoan irakasle edo heziketa-langileen hautespen-probetara 2015ean aurkezten diren izangaiek proba horietarako izen-emate nagusiarekin batera egingo dute hizkuntza-eskakizunen probetarako izen-ematea, beren deialdiaren baldintzen barnean.

14. artikulua.– Hizkuntza-eskakizunen azterketen ebaluazio-irizpide orokorrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1994ko urtarrilaren 10eko Aginduaren I. eranskinean xedatutakoak izango dira (1994-01-26ko EHAA). Bere aldetik, HLEA hizkuntza-eskakizunean apirilaren 5eko 66/2005 Dekretuan (2005-04-14ko EHAA) xedatutako irizpideak jarraituko dira.

15. artikulua.– Deialdi itxirako kalifikazio-sistema Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1995eko apirilaren 10eko Aginduan xedatutakoa izango da (1995-05-11ko EHAA). Deialdi irekian, berriz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1998ko urriaren 22ko Aginduan (1998-11-05eko EHAA) ezarritako kalifikazio-sistema aplikatuko da. HLEAko azterketaren eskemari eta kalifikazio-sistemari dagokienez, zati idatzian lehen hizkuntza-eskakizuneko eskemari jarraituko zaio eta ahozkoan bigarren eskakizunekoari.

16. artikulua.– Era berean, arau nagusi horiek garatze eta zehazte aldera, Azterketa Batzorde Bateragileak ezartzen dituen orientabideak eta irizpideak bere horretan jarraituko dira. Ahozko probaren grabazioa berariaz bultzatuko da, azterketaren material-erregistro osagarria eskuratu ahal izateko. Baldin eta azterketariak grabazioa egin nahi ez balu, uko egitea sinatu beharko du. Izan ere, erabaki hori dela medio, bere ahozko proba ezin izango da birzuzendu erreklamazio kasuan.

17. artikulua.– Azterketak egiteko lekuak, egunak eta orduak, bai deialdi irekirako eta bai itxirako, Sailaren webgune ofizialean argitara emango dira: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/euskara

18. artikulua.– Deialdi itxira aurkezteko obligazioa duen ikasketariren batek azterketaren zati idatzira ezin joana izango balu, eta hutsegite hori behar bezala justifikatuko balu, Euskara Zerbitzuak arrazoi horiek balioetsiko ditu eta ikasketari horri hurrengo deialdi itxian azterketa egiteko aukera eman ahal izango dio. Ezin joana ahozko azterketaren kasuan gertatzen bada, azterketaldi bereko beste egun bat erabiltzeko aukera hobetsiko da. Hurrengo txandarako erreserbaren eskabidea azterketa aurretik egin beharko da edota ezin-etorria gertatu den azterketa-egunetik hasi eta hamabost egun naturaleko epean.

19. artikulua.– Aurkeztu diren azterketarien kalifikazioak Hezkuntza Sailaren webgune ofizialean emango dira argitara. Bestalde, hizkuntza-eskakizunen bat lortu dutenen datuak Hezkuntza Sailburuordetzako ziurtagirien fitxategian integratuko dira eta pertsona horiek ziurtagiria eskuratu ahal izango dute, nork bere Hezkuntza Ordezkaritzan.

20. artikulua.– Lortutako emaitzarekin konforme ez badago, azterketari orok dauka dagokion erreklamazio idatzia aurkezteko eskubidea, emaitzak argitara eman eta hiru laneguneko epean, bere kalifikazioa berrikusteko. Horretarako, dagokion batzordeko lehendakariarengana zuzendu eta erreklamazioa lurraldeko Hezkuntza-ordezkaritzan entregatu beharko du. Azterketa Batzordeak hilabeteko epean argitaratu beharko ditu berrikustearen ondoriozko kalifikazioak. Era berean, Azterketa Batzordeak gutun pertsonalen bidez erantzun ahal izango die hala deritzen erreklamazioei.

21. artikulua.– 1.– Azterketetan iruzur egiten edo horretara eragiten duen edozein azterketari, edota bidezko ez diren laguntzak erabiltzen dituen nornahi, prozesutik baztertuta gelditzuko da eta ordura arteko kalifikazioak baliogabetuta gelditzuko dira, jarduera horrek sor ditzakeen erantzukizunez gain.

2.– Azterketari bat baztertzeko erabakia lurraldeko azterketa-batzordearen lehendakariari dagokio edozein azterketatan, bertan dauden batzordekideen proposamenez, interesatuari entzun ondoren.

22. artikulua.– 1.– Azterketa-material guztiak, alegia, erantzun idatziak, audio grabazioak eta partezko zein guztizko emaitzak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak gordeko ditu, emaitzak argitara eman eta handik urtebeteko epean gutxienez.

2.– Aipatutako materialak isilpean daudela bermatu beharko da, eta ezin izango da horien kopiarik egin, azterketa-batzordeen balioespen-lanerako eta gainerako zereginetarako ez bada.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ahalmena ematen zaio Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari ebazpen honetan xedatutakoa garatzeko neurriak har ditzan.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, argitara eman eta biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 17a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.